

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gas-app edozein ibilgailuen erabiltzaileei zuzendutako aplikazioa da: kotxea, motorra, furgoneta, karabana, kamioia... Ibilgailua zein gidatzeko karneta duen biztanleria 18 urte baino gehiago duten pertsonak direnez, aplikazio hau erabiliko duten herritarrak adin nagusikoak izango dira, hain zuzen ere. Horregatik, bezeroen taldea oso zabala eta orokorra denez, gure merkatua masiboa dela esaten da. Merkatu masiboaren barruan, pertsona batzuk gehiago erabiliko dute beste batzuk baino, hau da, lanera joaten direnak egunerokotasunean erabiliko dute edota momentu zehatz batean nonbaitera joan behar direnak bereziki. Adibidez, presaka dagoen pertsona batek eta gasolindegia oso urrun badago eta bere ibilgailua erregaiaz bete behar badu, aplikazioarekin zerbitzaria hurbilduko da.

Adibidez, unibertsitateko ikasle bat eskolara iristean, gasolina gabe geratu dela konturatzen da. Ondorioz, gure app-a erabiliz, langile bat eskatu eta bera ikasten ari dela, langile honek bere garraioaren erregai biltegia beteko du bezeroa pretsentzialki egon beharrik gabe.

Horretaz gain, azpikontratazioa edo esternalizazioa onartzen dugu: hala nola, tren enpresak (ad. Renfe), tranbia edo metro enpresak (ad. Euskotren), autobus enpresak (ad. Alsa), kamioi enpresak... edozein garraio erregaia behar duen enpresa. Garraio hauek erregai bikoitza gutxienez behar dutenez, furgoneta ordez kamioi berezi bat hurbilduko da. Beste aldetik, taxistak kontzentratzen diren puntuetara hurbildu ahal dira.

Gure app-a EAeko eta Nafarrako biztanlei adieraziko diegu, hau da, lurralde horietaz kanpo ez da Gas-app funtzionatuko.